

6. GABONART

36. Artisautza Azoka

Aurten ere, eta seigarrena da dagoeneko, Arbasok, Euskal Herriko Artisau Elkarteak, 6. Gabonart, Gabonetako Artisau Azoka, ospatuko du, Bilboko Areatzako kaian. Orain dela sei urte, Arbasok desagertutako Gabonetako Artisautza Azokaren testigantza hartu zuen, eta berriro ere esperientzia errepikatuko du. 6. Gabonart abenduaren 14tik urtarrilaren 6ra arte egingo dute.

Gabonart sektorearen erakusleihu polita izango da. Guztira 48 artisau izango dira, gehienak bizkaitarrak, hala ere, Euskal Herriko lurraldetik eta baita kanpotik etorriko dira ere. Guztien artean osatuko dute aurtengo Gabonart, Artisautza azoka.

Esperientzia honi esker, bisitaria ohartuko da lanbide zaharrak indarrean daudela, eta ez dela artisau piezen kalterako. Pieza guztiak eskulan eta artisautza prozesuen arauak errespetatuz diseinatzen dira. Eurretariko askotan, ordea, berrikuntzara jotzen da eta inspirazio iturria orainean eta geroan topatzen dute. Horregatik bada, gaur egun artisau izatea garaikide izatea da. Gabonetako Azokak hau dirauen bitartean, hainbat ekintza ludiko egingo dira azoka barruan artisauaren eta bisitarien arteko interakzioa dinamizatzeko eta, azken batean, bisitaria artisautzaren munduan sararazteko.

48 artisau

Beste behin ere, Bizkaia izango da ordezkari gehien izango dituen lurraldea, 23 artisau izango dira, hain zuzen ere. Gipuzkoak 4 ordezkari izango ditu, Arabak bat eta Nafarroak beste bat. Horretaz aparte, Catalunyatik 3 artisau etorriko dira Bilbora, bat Murtziatik eta beste bat Aragoitik, lau Gaztela-Mantxatik; bat Kanariar Uhartetik, bi Cantabriatik, eta beste bi Asturiasetik. Zerrenda ostuko dute Galiziako bi artisauk, Murtziako batek, Valentziatik beste bik eta Andaluziako batek.

Sektorekakori dagokionez, honakoak izango ditu Gabonartek: zazpi bitxigintzakoak, bederatzi ehungintzan arlokoak, lau beirakoak, sei larruzkoak eta beste bost zeramikazkoak. Halaber, zura lantzen duten sei izango dira aurtengoan, eta kosmetikak bi artisau izango ditu. Horretaz gain, argizarigintzak erakustoki bat izango du, eta gauza bera bestelakoak, landare zuntzak, lore lehorrak, birziklapenak, haize-emaileak eta olibondoeko tresnak.

Erakustaldiak eta gehiago

Arbasok Gabonart bere gain hartu zuenetik beti hartzen ditu aintzakotzat bisitariak, artisautza tradizionalean ezagutzeko asmoarekin. Aurtengo edizioan, bada, are gehiago. Asmoa baita ekoizleak bertatik bertara ezagutzeaz gain, antzinako lanbideak ezagutaraztea eta horietan sakontzea. Horregatik, bertan, zuzeneko erakustaldiak egingo dituzte, eta horretarako leku berezia prestatu dute. Beraz, aurten ere, bisitariak ikuslea izateaz gain, pieza bat sortzeko prozesuan parte hartu ahalko du.

Halaber, inaugurazioaren egunean zuzeneko irratiko saio bat egingo da eta Gabonartek dirauen bitartean zozketak eta hainbat zorpresak izango ditu bisitariak.

Eta hori gutxi ez balitz, Gabonarteko atarian erakusketa izango da ikusgai, bilduma horrek zura izango du protagonista, eta han publikoak eskuz egindako biolinak eta kontrabaxuak ikus ditzake, besteak beste.

ARBASO: sustatzaileak

Arbaso da Euskal Dendaren eragilea; Gizarte Izaera duen irabazi asmorik gabeko elkarte da. Helburu nagusia honakoa du: euskal artisautza tradizionala eta garaikidea bultzatzea Euskal Herrian.

Arbaso izaera nazionala duen artisauen elkarte bakarra da Euskal Herrian. Ia ehun artisau-tailer biltzen ditu. Helburuak honakoak dira:

- Euskal artisautza sektorearen ordezkariak izatea.
- Artisautza tradizionala ezagutaraztea eta egunero erabiltzea sustatzea.
- Labela edo jatorrizko izendapena lortzea euskal artisautza tradizionalarentzat. Gipuzkoan eta Nafarroan badugu kalitate-etiketa bat.
- Euskal artisautza eta kultura sustatu nahi duten erakunde publikoen eta pribatuen inplikazioa lortzea.
- Eguneroko artisauen lana zaintzea, berori baita gure ondare kulturalaren etorkizuneko giltzarria. Laburbilduz, belaunaldi berriei ezagutzera ematea gure herriaren usadioak, kultur tradizioan aberatsak gara-eta.

Lorea Madina
Komunikazio arduraduna
prentsa@arbaso.com
607 86 32 24

FITXA TEKNIKOA

EDIZIOA: 6. Gabonart - 36. Artisautza Azoka

DATA: abenduaren 14tik urtarrilaren 6ra arte.

ORDUTEGIA: Goiza, 11:00 - 14:30
Arratsaldea, 17:00 - 21:00.
Abenduaren 24an eta 31n eta urtarrilaren 6an
Goiza, 11:00 – 15:00

Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean itxita.

INAUGURAZIO OFIZIALA: Ostirala 14, 12:15ean.

ERAKUSTOKIAK: 48

LURRALDEKA

Bizkaia 23
Gipuzkoa 4
Araba 1
Nafarroa 1
Murcia 1
Gaztela-Mantxa 4
Aragoi 1
Catalunya 3
Kantabria 2
Asturias 2
Kanariar Uharteak 1
Galizia 2
Andaluzia 1
Valentzia 2

SEKTOREKA

Ehungintza 9
Beira 4
Bitxigintza 7
Imitaziozko bitxiak 1
Zeramika 5
Zura 6
Larrua 6
Kosmetika 2
Haize-emaile 1
Landare zuntza 1
Lore lehorrak 1
Olibondoizko tresnak 1
Bestelakoak 1
Argizarigintza 1
Birziklapena 1

LEKUA: Areatzako Kaia.

ZOZKETAK: Erosketarako kupoiak.

BABESLERIK NAGUSIENA: Bizkaiko Foru Aldundia

BABESLEAK: Bilboko Udala
Hamaika Telebista
Onda Vasca
Deia
Gara

INTERNETEKO HEDAPENA: <http://gabonart.blogspot.com.es/>
www.arbaso.com

HEDABIDEAK: Lorea Madina
prentsa@arbaso.com
607 86 32 24